

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

613. zkia.

XV. urtea

2007ko maiatzaren 11a

BEHERAPENAK

%70

«Merkataritza dagoen
lekuan bizitza dago»

**Oraindik badago geratzeko arrazoirik.
Erregaia botatzea ez da horietako bat.**

Chevrolet Lacetti TCDi berria. Dibertsio gehiago. Geldialdi gutxiago.



LACETTI LACETTI. Chevrolet Lacetti berria 121 ZP diesel TCDi motorarekin, EB0dan ABSa, airbag bikoitza, alboko aire-goltsak, ISOFIX lokailuak, klimatizagailua, abiaduraren kontrol automatikoa, diesel partikularen iragazkia... (Bertsioaren arabera ekipamendua).

Lacetti 1.4 SE
Sarrerarik gabe
125€/hileko - 118 kuota
Preber plana barne. %6,77 UT

GEHAGO DA.



Giauto

www.giauto.es
clientes@giauto.es

EBAR
Otoola, 27
943 202 500

OLABERRIA
Korobi Ind.
943 885 150

salmentak: 902 345 225
tailerra: 902 345 235

Lacetti 1.4 SE 116 enbaki. PVP: 11.016 € (Preber plana eta sartapena barne). Iraultza: 118 kuota 125€-koak. Finantziazko zehaztasun osoa: 15.026.248. TIN: %6.4776. Irteera konstante: %3.5 (176.248). Eskaintza erkin da beste sartapenekin batera. 2017/05/27ra arte balio du Penintsulako eta Baitararako. Finantzazioa Finanzia Banco de Cebsa, SA. IRD: 1058/07. Irteeraren muga: 17.800€/a. 5.7.6.8. CO2 buelta (gr/m): 149.218. 3. arloko edo 108.000 km-ko berrera. Monevoren iruzkia da aplikatzen lagere bi arloetan (Bereen Legea: 23/2003).



EZ DU LEKURIK HARTZEN!!

- Arina eta xurgatzailea
- 300 gr bakarrik pisatzen ditu
- Bidaietarako, etxerako, kirola egiten duzunerako....zoragarria!

Bakarra munduan!

TOALLAK

Neurriak:

70 x 1'10
75 x 1'50
1'50 x 2



Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com



SARE GURRUTXAGA



AITZOL GARMENDIA

ZOZOAK BELEARI...

Aupa A.

Letrekin solasean gabiltzan arren, gu biok zenbakizaleagoak garela garbi zagok. Letrekin ondo moldatzen garen zenbakidunak gaituk. Ni behintzat.

Gauza duk betidanik gustoko izan ditudala zenbakien arteko harremanak. Zenbakiak bidaltzen dituzten mezu ezkuetak. Han eta hemen etengabe keinuka ari diren sinbolotoxoak.

Hiztegiaren kantitatea adierazten duten irudiak bezala definitzen dituzten arren, zerbait gehiago kontatzen zigutek zenbakiak. Beraien hizkuntza ulertzen saiatzea duk jendea-ri arraroa egiten zaiona. Nire ingurukoek obsesio hitza erabiltzen ditek nire zenbakiak jarraera deskribatzeko. Nire ustez fijasioa duk.

Hor zeudek zenbakiak portaletan, erlojuetan, matrikuletan, termometroetan... hor zeudek ikustea nahi dituen edonorentzat. Batzuk fijasio egiten gaituk, besterik gabe.

Inungo inportantziarik ez duen gai bat ekarri diat paperera oraingoan, Aitzol. Baina aurrekoan nik fijasioa diadan zenbakiaren obsesioaz ziharduen filme bat ikusi nian zineman, eta bakarra ez nintzela ikusteak lasaitu egin nindian. 23.

Zergatik diagu mundu honetan ezberdinak izateko edo ezberdin pentsatzeko horrelako beldurra batzutan? Zergatik lasaitzen gaituk gure moduko gehiago ere badirela ikustean? Akaso testu honen karaktere kopuruan bilatu beharko diat erantzuna, 1.274.

«Letrekin ondo moldatzen garen zenbakidunak gaituk»

SARE

«Errealitatea hitzez margotzen nahikoa lan dugunak gaitun»

AITZOL

Bagaitun errealitatea hitzez margotzen nahikoa lan hartzen dugunak, baina baita beste asko ere mundua zenbakiz gorpuzten dutenak. Zenbaki zirrargarrienetakoa zenbaki aureoa edo urrezko erlazioa dun, fi: 1,618 motzean. Fibonnacciren seriean zenbakiak hurrenez-hurren hazten doazen proportzioa: 1, 2, 3, 5, 8, 13, 21..., eta baikoitza aurreko bien batura delarik.

Gizakiaren gorputza erlazio honetan oinarritzen dun. Pertsonaren altuera eta zilborraren altuera, sorbaldatik hatzetara eta ukalondotik hatzetarako distantzia eta aldakaren altuera eta belauaren altuera. Baita ahoaren diametroa eta sudurraren artean ere. Gorputz eta aurpegian zenbat eta proportzio hau sarriago agertu orduan eta politagoa iruditzen zaigun.

Naturako hainbat fenomenotan ere agerian. Karakolen oskoleko eta piñaren espiralen artean, hostoen nerbioetan edo erlauntza bateko erle ar eta emeen arteko erlazioa. Artean, Atenaseko Partenoia-aren edo Miguel Angel-en eskulturen altuera-zabalera proportzioa, Egiptoko piramideen erlazio arkitektonikoak, Giocondaren aurpegiko formak. Itxuraz Mozart eta Beethoven-en sonatetan estrukturek ere erlazio hau jarraitzen dituen.

Bukatzeko, nere kurrikulumean: 79/7/9an jaiotzen nindun, 3/3an aurkitu nian 5 petaloko trebola, 10/10ean aterata nian gidatzeko kameta eta 11/11n pasatu nindun lehenengoz kirofanotik.



EZER EZ DA IKUSPUNTU GUZTIA ETATIK EDER



Quintus Horatius Flaccus

Merkadilloko langileei

Sigmako aparkalekura eraman eta gero merkadilloak bizi duen egoeraren aurrean Maiatzak 27ko Hauteskundee-tarako hautagaiak beraien jarrera publikoki azal dezaten merkadilloko langileek egindako eskariaren aurrean, zera esan nahi dugu:

1. Ezker Abertzaleak hasieratik lan egin du gai honen inguruan, bai traslodoaren kontra manifestatuz, bai ondoren Elgoibar Bizirik herri plataformaren sorrera eta dinamizazioa bultzatuz, gatazka hau konpontzeko asmoz, beti ere Udal Agintean eta merkadilloko langileen artean adostasuna bilatuz. Zoritarrez, PNV eta EAren Udal Agintarien burugogorriak eta izaera demokratiko ezak ezinezkoa egin dute akordioa.

2. Udaletxean erabakiak hartzen direnean kaltetuen iritzia eta ahotsa entzun gabe, eta gatazka sortu eta gero, atzera egin beharrean inposaketaren bidea hartzen denean, arazoak areagotzea besterik ez da egiten.

3. Azken 4 urteotan Ezker Abertzalea Udaletxetik kanpo egoteak eta PNV-EAK ezker abertzalearen botoak lapurtu izateak oposizio falta ekarri dute eta horrela, PNV-EAK nahi izan dutena egin dute.

4. Ezker Abertzaleak oso argi du bere jarrera gai honetan: Elgoibarko He-

riak herri galdeketa gehienoz erabaki zuena. Hau da, 3.365 elgoibartar merkadilloa herri barruan gelditzearen aldekoak. Herriko merkataria eta tabernaria gehienek ere Elgoibar Bizirik-ek egindako inkestan erantzun berdina eman zuten.

Beraz, EAE-ANV-k, gure esku dagoen guztia egingo dugu udaletxetik merkadilloa berriro herri-barrura buelta dadin, hori delako herritar gehienek nahi dutena. Gure iritziz, herriko bi plazak (handia eta txikia) leku onak dira merkadillorako. Halere, gai honen inguruan edozein erabaki hartu baino lehen, kaltetuekin (herritarrek eta merkataria) hitz egin beharko litzateke.

Baita ere, ahal dugun guztia egingo dugu Udalak langileei sortutako ekimen judizialak bertan behera uzteko, eta, eragindako kalteak, nolabait, ordaintzeko.

IÑAKI ODRIOZOLA, EAE-ANV-REN IZENEAN

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko alean, erretratu zaharrean agertzen ziren emakume batzuen izenak gaizki eman zizkiguten. Hemen daukazue zerrrenda guztia: Goian, ezkerretik eskumara: Anita Retolaza, Ascension Etxaniz (t), Juanita Unanue, Crucita Gorostiza, Jasone Vallejo (t), Zorion Gorostiza. Bigarren ilaran: Julita Gabilondo, Luz Abascal (t), Anjelita ?AndikanoÇ (t), Julita Aranberri (t), Karmen Zengotita (t), Isabel Alegria, Lola Arrese, Loreto Zubizarreta (t). Beheko ilaran: Miren Vallejo, Alicia Marcos, Mari Karmen Zabala (t), Mari Karmen Elorza, Lucia Zabala, Karmen Garmendia, Pili Zabala, Maite Zabala eta Maria Luisa Iturralde.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com




BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Urasandiko patinatzeako parketik barandau bat kendu dute:** "Urasandi auzoan patinatzeako parke bat dago eta jende asko ibiltzen da bertan. Orain arte, barandau bat zegoen eta hura erabiltzen genuen patinekin ibiltzeko, gure ustez, oso ondo zegoen horrela, baina kendu egin dute, aparkaleku bat jartzeko. Aparkaleku arazoa handia da, baina auto bat gehiago sartzeko ez du arazoa konpontzen. Ez dugu ulertzen zergatik kendu diguten barandaua".

• **Jendeak Osasun Zentro aurreko errotondan aparkatzen du autoa:** "Lotsagarria da. Osasun Zentro aurreko errotonda aparkaleku modura erabiltzen du jendeak eta gainontzeko gidariei traba handia egiten diete. Orain Plaza Txikian lekua egoten da, beraz, ez dago aitzakiarik. Medikuairengana joateko ez da autoa ate parean laga behar".

• **Azkoitiko Rally-sprintaren ondoren, Azkarateko errepede zaharra zikinkeriaz beteta gelditu zen:** "Bigarren urtez jarraian gauza bera gertatu da. Iazkoa ikusita, ezin dut ulertu nola ez duten garbiketaren gaia kontuan hartu. Rally-sprinta antolatzea ondo dago, baina bukatu ondoren, ingurunea garbi laga behar da. Hainbeste kostatzen al da zabor poltsa batzuk banatu eta zikinkeriaz jasotzea?. Datorren urtean kontu gehiagorekin ibiltzeko eskatu nahiko nuke".



TXALOAK

• **Txalo zaparrada handi bat eskubaloiko Tecnifuelle taldeari:** "Kristona izan zen. Colindresera gerturatu ginenok izugarri disfrutatu genuen. Futbolaren gainetik jarri duzue eskubaloia gure herrian. Herritarren erantzuna ere bikaina izan zen, Plaza Handian sekulako harrera egin zitzairen taldekide guztiei. Urte askotako lana bere fruituak ematen ari da. Aupa Sanlo!".



• **Mendaroar batek Gazte Asanbladako kideak txalotu nahi ditu Mendarori Buelta prestatzen egindako lan gogorragatik:** "Arnoko aldapetan, aizotzak eskutan, sasiak ebatzen ibili dira azken asteburuetan bidea garbitze aldera. Bertako baseritarrak ere harrituta geratu dira gazteak lanean ikusita. Udaletxeak baino Gaztetxeak gehiago ematen dio gure herriari".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Udal Hauteskundeak 2007

Jarraipen berezia



Gehigarri bereziak
astekarian,
maiatzean zehar

[b]



Elkarrizketa digitalak
hautagaiekin

elgoibarren.net

Bidali galderak:
elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com



MAHAI INGURUA
hautagaiekin

Maiatzak 22, asteartea
19:30ean

Musika Eskolako Auditorioan

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

**«Emakumiak erretzen,
prakak eta minigonia»**

Gan. Etxian ez, kalian bakarrik, baiña ez dot uste etxian erretzeko problemarik edukiko nabanik. Gure ama modema samarra zan, andra inteligentia eta aurreratua zan. Aitta ere sano-sanua zan: ez zan batere agintzaillia.

Prakak? Hori inork ere ez zaban ibiltzen, emakumiak ez genduan prakarik janzen. Danak gonekin ibiltzen giñan. Txandalak ekarri zaban kanbi-xua.

Txandala etorri zanian hasi giñan emakumiak prakak janzen. Deportia egitteko edo lanera juateko janzen zan, eta poliki-poliki bestelako prakak erabiltzen hasi giñan.

Minigonia eta eskotia erabiltzia ere ez zaguan ondo ikusitta, eta guk ez genduan ibiltzen: puritana samarrak giñan gauza horretarako. Hori pekatua zan. Oiñ ikusiko bazendue zela ibiltzen giñan, sustau egingo ziranen.



[GURE BERBAK]

Fonologia (8)

Aurreko astian, bustiduria azaltzen ari nitzala, EZ partikuliak sortutako aldaketa baten berri eman naban (EZ + JAKO \Rightarrow ETXAKO). Ba, ez da hori EZ partikuliak aditzian sortzen daban aldaketa fonologiko bakarra, eta gaur ikusiko doguz gaiñerakuak.

• **EZ + B- \Rightarrow EZ P-**

Ez badago \Rightarrow ezpadago; Ez bazan \Rightarrow ezpazan...

• **EZ + D- \Rightarrow EZ T-**

Ez dabil \Rightarrow eztabill; Ez dator \Rightarrow ezator...

• **EZ + G- \Rightarrow EZ G- / EZ K-** (bixetara, nahiz lehena ugarixagua)

Ez gaittuzu \Rightarrow ezgaittuzu; Ez gara \Rightarrow ezgara...

Ez gatoz \Rightarrow ezkatoz; Ez giñan \Rightarrow ezkiñan...

• **EZ + N- \Rightarrow E N-**

Ez nagok \Rightarrow enagok; Ez nixe \Rightarrow enixe...

• **EZ + L- \Rightarrow E L-**

Ez leuke \Rightarrow eleuke; Ez litzake \Rightarrow elitzake...

• **EZ + Z- \Rightarrow E TZ- / EZ Z-** (bixetara)

Ez zan \Rightarrow etzan; Ez zatorren \Rightarrow etzatorren...

Ez zaitetz \Rightarrow ezaittez; Ez zauan \Rightarrow ezauan...

Hemen ere bi aukerak entzuten dira, afrikatua eta frikaria.

Jesus Mari Makazaga

Elgoibarko eta Mendaroko

GIDA KOMERTZIALA

Klikatu eta ikusiko duzu!



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



OSTEGUNETAKO MERKADILLOA

ETORKIZUNA KOLOKAN?

10 hilabete igaro dira dagoeneko, ostegunetako merkadilloa Sigmara lekuz aldatua izan zenetik eta pasa den egunean, merkadilloko saltzaileek publiko egin zuten balantzearen arabera, "salmentak %70ean jaitsi dira". Zeresan ugaria sortu du Elgoibarren gai honek eta egungo egoera ezagutu nahian, Raul Argaiz merkadilloko saltzaileetako batekin izan gara, Alde Zaharreko zenbait komertzioaren artean galdeketa bat burutu dugu eta Txankakua Merkatarien elkartera jo dugu.

Horrez gain, Marivi Agirregomezkorta alkateak, egungo merkadilloaren inguruko baloraziorik ez dutela egin eta ezin dutela burutu azaldu digu.

MERKADILLOKO SALTZAILEEN IKUSPUNTUA

Raul Argaizek jakinarazi digunez, merkadilloko saltzaileak ez daude batere gustura Sigman: "momentu hauetan, 32 postu ingurutako jendea etortzen gara Elgoibarrera". Beraien ezinegonaren arrazoi nagusia, jende eta bezero falta da: "Merkadilloa Sigmara lekuz aldatu ondorengo, lehenengo hilabetean, herritarrak joaten ziren. Baina, horren atzean, alderdi agintariak "efecto llamada" delakoa egin zuela pentsatu genuen, merkadilloaren egoera apur bat normalizatu zela bistartzeko" gaineratu digu Raul Argaizek.

Modu berean, bigarren hilabetetik aurrera, Sigmako merkadillora joaten diren herritar eta orohar, pertsonen kopurua nabarmen jaitsi dela aipatu digu: "jendea ez

adierazgari, esan, balionitzeko eremu honetan, bestelako ekintzak aurrera eramaten saiatu diren aldiro, ez dutela funtzionatu, barraken kasuan, esaterako".

Egoeraren larritasuna aintzat harturik, Elgoibarrera etortzearen errentagarritasunaren gainean honakoa esan digu: "errentagarritasuna ez da handia, baina, hemendik alde egin ezker, dena galtzen dugu. Are gehiago, etortzeari uzten diot, ezingo du etortzen jarraitu". Horrez gain, Raul Argaizek udaletxeak bere garaian onartu zuen ordenantza ez dela be-

te azpimarratu digu, are gehiago, udaletxea bera izan dela, ordenantza hori bete ez duen aurrenekoa: "guk gure ibilgailuekin Sigmako eremura sartu behar izaten dugunean, maniobra ugari egin behar izaten ditugu, gune industrialak izanik, autoen joan etorria izugarria baita. Honen aurrean, aipatu, udaltzainak ez beste inor ez dela gerturatzen nahasmen hori antolatzeke". Guzti hau dela eta, saltzaileak, Udal legealdi berrirako alderdi desberdinetako hautagaiek merkadilloaren egungo egoerarekiko hartuko duten jarrera

«Erretzeko
geratzen zaigun
azken
kartutxoaren
zain gaude»

da Sigmara joaten. Guk goiz goizetik jartzen ditugu postuak hemen, eta herritarrak ez dira etortzen, goizeko hamarrak aldera arte. Leku honek badu zerbait, jendearengan kimika onik sortzen ez duena. Horren



Protesta asko egin dira merkadilloaren leku aldatetaren kontra.



zein izango den jakiteko esperoan daude: "erretzeko geratzen zaigun azken kartutxoaren zain gaude".

MERKATU PLAZAKO SALTOKIEN IRITZIA

Merkatu Plazako postuetako saltzaileak bat datoz. Guztiek ere, merkadilloa Sigma mara tokiz aldatu zenetik, ostegunetan Merkatu Plazan jende gutxiago ibiltzen dela eta horrek euren negozioetan eragin zuzena izan duenaren berri eman digute, eta ez onerako bereziki. Hona hemen bildu ditugun zenbait adierazpen: "salmenta ahulak ditugu oso eta bezero gutxiago etortzen dira. Bezero ugari komentatzen digute, emakume asko ez direla dagoeneko ostegunetan kalera ateratzen. Lehenago, merkadilloak zuen kokapenak, hots, herriaren erdigunean egoteak, heritarrei eta bereziki, emakumeei merkadillotik osteratxo bat eman eta gainerako herriko dendetan erosketak egiteko aukera luzatzen zien. Orain, berriz, Sigma oso aparte geratzen zaie". Ostegunetan kalean ibiltzen den jende mugimendua behera egin

duela baieztatzen Alde Zaharreko komertzio eta taberna ugari ados daude. Are gehiago, beren negozioetan nabaritu dute salmentak jaitsi direla eta bezero gutxiago izaten dituztela ostegunetan. Funtsean, "kale giroa eta bizitza dexente ahuldu da".

Honen aurkako iritzirik duen komertziorik ere, bada noski. Zenbait dendetatik azaldu digutenez, beraien ez du eraginik izan merkadilloaren leku aldaketak, bezero kopuruari eta salmentei dagokionez.

«Kale giroa
eta bizitza
dezente
ahuldu
dira»

TXANKAKUA MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEAREN BALORAZIOA

Elkarte honek 2004ko irailaz gozotik merkadilloaren gaineko bere iritzia plazaratu zuen. "Gure ustez, merkadilloak Plaza Handian zuen kokapena zen egokiena eta hala izaten jarraitzen duela deritzogu. Laurbilduz, merkadilloa herri erdigunean kokatu beharko litzatekeela pentsatzen dugu, ez baikara herri kanpoan ezarpenik egitearen aldekoak. Bi urte térdi merkadillorik gabe eta merkadilloarekin egon ostean, nabaritzen duguna zera da: herri mugakideetako bisitarien kopurua nabarmen jaitsi dela ostegunetan eta guk merkatarari moduan, heritarrek kalera ateratzea nahi dugu eta ahal duten neurrian, gu bisitatzea. Honenbestez, udaletxeak Elgoibarko merkataritza aintzat izan behar duela iruditzen zaigu. Izan ere, beti esaten dugun bezala, merkataritza da herri mugimendua eta bizitasuna ematen dion iturria. Eusko Jaurlaritzako leloak dioen bezala: Merkataritza dagoen lekuan, bizitza dago".

[PROTAGONISTA]



Natalia Mellado

Nathalia Mellado abeslari elgoibartarrak jarri dio ahotsa Imanol Arias protagonista duen filmako soinu bandari. "Lo que tiene el otro" izena du pelikula honek eta hiltbate gutxi batzutan estreinatuko da.

31 urteko elgoibartar hau 11 urterekin hasi zen bakarlari moduan. 23 urterekin ETBko lehiaketa bat irabazi zuen eta hari esker, 2 urtez jardun zuen telebistan lanean. Duela 8 urte joan zen Natalia Mellado Madrilera bizitzera, eta denbora honetan koplak eta flamenko munduan lekutxo bat egitea lortu du. "Nati" izenez ezagutzen dute mundu honetan.

[NOTIZIA]

Tratamendu berezia izango dute Udal Hauteskundeak BARRENen

Gero eta gutxiago falta da maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetarako. Gaur gauean hasiko da kanpaina politikoa eta une horretatik aurrera, alderdi guztiak botoa eskatzen hasiko dira. BARRENen ere, Udal Hauteskundeak izango dira maiatzeko protagonista nagusiak. Dagoeneko, Udal Gobernuak eta oposizioak amaitzeaz dagoen legegialdiari buruzko balorazioa egin dute BARRENen. Gaurtik aurrera, 8 orrialdeko gehigarri bat argitaratuko dugu astero. Bertan, alkatetzarako hautagaien elkarrizketak eta alderdi bakoitzak gai konkretu batzuen gainean daukaten iritzia jasoko ditugu. Aste honetan, etxebizitza eta hirigintza izan da gaia. Datozenetan euskara eta gizarte gaiak izango dira hizpide.



Mahai ingurua

Maiatzaren 22rako, bestalde, mahai inguru bat antolatu du BARRENek. Iluntzeko 19:30ean hasita, zerrendaburu guztiak bilduko ditugu Musika Eskolan. Honetaz gain, www.elgoibarren.net atarian elkarrizketa digitalak egingo ditugu hautagaiekin.

[ZENBAKIA]

491.548

Madalako kioskoan saldutako loteria boleto batek 491.548 euroko saria jaso du. Oraindik ez daukate irabazlearen arrastorik.

Duela 2 urte inguru, beste sari potolo bat tokatu zen kiosko honetan; orduan, 629.712 euro jaso zituen irabazleak.

asteko [ARGAZKIA]



Europen hasi ziren galiziarren jaiak. Ohikoa da Elgoibarren galiziarren jaiekin batera euria egitea, baina azkenean, asteburu nahiko polita ateratu zen. Olagarroa izaten da galiziarren jaietako erregea, eta aurten ere halaxe izan da. Herriar asko gerturatu da olagarroa jatera, eta garesti egon dela esan dute gehienek. Hala ere, Galiziako jaki tipikoak dastatu gabe herriar gutxi gelditu da. Musika eta festa giroa izan da nagusi asteburuan, eta umore onean bizi izan dituzte "dias das letras galegas". Datorren urtean gehiago eta ahal bada, hobeto.

Foru Aldundiak 338.846 euro bideratuko ditu eskualdeko garraio publikorako



Gipuzkoako Foru Aldundiak bidaiarien errepide bidezko garraio zerbitzuak finantzatzeko ditu Debabarreneko eskualdean. Guztira, 338.846 euro bideratuko ditu Aldundiak Eusko Trenera, zerbitzu berriak mantendu ahal izateko. Foru Aldundiko bozeramaileak jakitera eman duenez, aurreikusi den esplotazio defizitaren % 71,3a estaliko du Lurralde Antolaketa Eta Sustapenerako Departamentuak kopuru horrekin. Defizitaren gainontzekoa Eusko Tren enpresak eta Debako, Elgoibarko, Mendaroko, Mutrikuko, Ondarruko eta Soralezuko Udalek hartuko

dute bere gain. Hiru urte aurreikusten dira Debabarreneko garraio zerbitzu berriek errentagarritasun sozial eta ekonomikoa lor dezaten.

Zerbitzu berriak

Autobus zerbitzu berriak joan den martxoaren 19an jarri ziren mertxan eta Aldunditik diotenez, zerbitzua "dezente" hobetu da. Express linea jarri da, taxi busa, autobusen maiztasunak gehitu dira. Debabarrenako garraio publiko zerbitzua hobetzeko 3 autobus berri erosi eta 7 gidari gehiago jarri dira.

Zita medikoa internet bidez hartu daiteke



Osakidetzak webgunean jarri duen Osanet zerbitzuari esker, zita medikoen erreserbak Internetez egiteko aukera dago. Aurretiko Zitaren zerbitzuak familiako medikuarekin zein pediatriarekin zita eskatzea eta gordetzea ahalbidetzen du. Hartutako zitak kontsultatu edo deuseztatzeak aukera ere ematen du orrialdeak. Erreserba egiteko osasun txartel elektronikoaren bidez identifikatu behar da, edo bestela OTI-ko (Osasun Txartel Indibiduala) datu pertsonalak emanez. Dena dela, telefonoz edo Osasun Zentrora joanez ere, hartu daiteke txanda.


[MOTZ-MOTZIAN]

Bidezko Merkataritza

Bidezko Merkataritzaren dendak asteburu honetan itxiko ditu atekak. Oraindik Bidezko Merkataritzan erosketarik egin ez duzenok, bihar izango duzue azkenengo aukera. Merkatu Plazan daukate lokala eta goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara egongo da zabalik.

Gida Komertziala

BARREN astekariarekin batera Elgoibar eta Mendaroko Gida Komertziala jasoko duzue gaur. Bertan, herriko komertzio eta enpresa guztien telefono zenbakiekin batera, botiken txandak, herriko mapa eta autobus eta trenen ordutegiak aurkituko dituzu. Gida hau online kontsultatzeko aukera ere badago, www.elgoibarren.net webgunean.



Udalekuak

Atxutxiamaiak eta Gaz-T Aisialdi taldeek udalekuak antolatu dituzte. Ekainaren 25etik uztailearen 20ra udaleku irekiak egingo dituzte, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Bertan parte hartzeko, 65 euro ordaindu behar dira. Bestalde, udaleku itxiak ere prestatu dituzte. Bi aukera izango dira: Askizu (uztailearen 9tik 18ra, 230 euro) eta Astitz (uztailearen 1etik 10era, DBHkoentzat, 230 euro). Udaleku hauetan parte hartzeko, maiatzaren 18a baino lehen eman behar da izena. Informazio gehiago 943741626 (Naiara edo Eukene).

Inkesta

10 hilabete pasatu dira merkadilloa Sigman jarri zutenetik.

Ostegunetako giroak behera egin al du merkadilloa Sigman dagoenetik?

PEPI CALLEJA
Etxekoandrea
57 urte



“Ni behintzat ez naiz merkadillora joaten eta lehen beti ematen nuen bueltatxo bat. Kaleko giroak asko egin du behera ostegunetan, mordoia igartzen da.”

ALVARO ESPIGA
Kalitate arduraduna
35 urte



“Ni lanean egoten naiz, baina etxean entzun dudanez, askoz jende gutxiago ibiltzen da orain kalean. Merkadilloa herrian egon behar da. Era-baki okerra hartu zuten.”

AGURTZANE BASTIDA
Garbitzailea
44 urte



“Ni lehen joaten nintzen ostegunetan azokara eta orain oso gutxitan joaten naiz, zerbait konkretua behar dudanean bakarrik. Jende gutxi ibiltzen da Sigman.”

MIREN NOGUERO
Erizaina
40 urte



“Nik goizez lan egiten dut, beraz, ez dakit, baina esaten dutenez, frakaso bat izan da leku aldaketa. Bai saltzaileen-tzat eta baita herriko merkata-rientzat ere.”

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu Amaren Eguna ospatzeko ohiturarik?

BAI %6

“Bai. Badakit tontakeri bat dela, Corte Ingles-aren eguna, baina urte batean amari oparia egin nion eta orain urtero egiten diot. Detailtxo bat egitea ez da batere kostatzen.”

EZ %94

“Ez. Honelako egunek barregurea ematen didate. Egutegitik kenduko nituzke guztiak. Opariak egiteko ez diit egutegiak esan behar, nahi dudanean egiten ditut.”

Datorren asterako... Gaur gauean hasiko da Udal Hauteskundeetarako kanpaina politikoa.
Kanpaina politikoak ba al dauka eraginik zure botuan?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiko Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozei.com

07

Udal

Hauteskundeak

[Hirigintza eta etxebizitza]



UNAI ZULAIKA
EB-ARALAReko hautagaia

«Une honetan
ez dut ikusten
Ezker Batua
EAJrekin gobernu
taldean»



JAVIER NUÑEZ
PPko hautagaia

«Gazteak nahi
ditugu herrian,
etxebizitza
sozialak
ezinbestekoak dira»



UNAI ZULAIKA

EB-ARALAReko hautagaia

«Alkate izendatzen banaute, merkadilloa herri erdira ekarriko dut»

Zinegotzi kargua utzi behar izan zuen Unai Zulaikak aurreko legealdian. Orain, EB-Aralar koalizioak beste aukera bat eskaini dio eta berak oso pozik hartu du ardura hau. Ilusioz eta gogoz beterik aurkezten da maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetara, eta herriaren alde lan egingo duela ziurtatu digu. Bere helburu nagusia Elgoibar modernoago bat eraikitzea da.

• **Zergatik onartu duzu EB-Aralar koalizioaren zerrenda burua izatea?**

Alde batetik, herritar askok eskatu didatelako kalean berriro aurkezteko, eta bestalde, barruan daramadan kontu bat delako. Politikan hasi nintzenean herriaren alde lan egitea zen nire nahia eta orain elgoibartarrez osatutako zerrenda egin dugu eta herriaren alde lan egiteko prest gaude. Gainera ilusioa neukan kargu hau betetzeko, jarraipena eman nahi diot lehen izan nintzen zinegotziari. Oraingoan legealdi osoa beteko dut.

• **Zein garrantzia dauka zure bizitzan militantzia politikoak?**

Politika niretzat ez da beste aspektuak baino garrantzitsuagoa. Hor daude familia, kirola, lana, lagunak... horien parean dago politika. Ni herri politikoa naiz, egiten dudana herriaren alde egiten dut, ez daukat beste aspiraziorik, nire asmoa ez da politikaz bizitzea. Elgoibarren nahikoa lan dago egiteko.

• **Nolakoak izango dira, zure ustez, datozen lau urteak?**

Politik eta lan asko egin beharrekoak. Orain arte gertatu ez den egin behar dugu, hau da, lan talde desberdinekin lan egin behar da. Gure asmoa udaletxea herritarrei zabaltzea da, eta ez hori bakarrik, gure ustez, herritarrek ere agindu behar dute Elgoibarren.

• **Zeri diozu beldur udaletxean sartzeko orduan?**

Nire lana egiteko beldurrik ez daukat. Udaletxe itxi eta diktatorial batekin topo egiteak beldurtzen nau.

• **Zein izango dira zure alderdiaren lehentasunak?**

Ez dago lehentasun konkretu bat. Gure asmoa da Elgoibar dagokion tokian jartzea. Erreminta Makinaren zentroa izanik, Elgoibar ez dago merezi duen lekuan. Desberdintasun sozialak murriztu behar dira, lan prekaritatea gutxitu, euskarari, kirolean, zerbitzuetan, gazteekin, nagusiekin... arlo guztietan egin behar da lan.

• **Zergatik da erakargarria EB-Aralar alderdien elkarlana?**

EB-Berdeak sortu zenetik, Euskal Herriko ideologia ezkeriar guztiak batzea zen bere nahia. Bide horretan, nahiz eta jakin desberdinak garela, badakigu ezkerreko ideiak direla nagusi gure artean, diferentzia bakarra nortasunean dago. Beraz, guretzat elkarlan hau oso positiboa da, desberdinen artean berdintasunak bilatzeak ematen dio zentzua politikari. Diferentzien gainetik akordioak lortzea da gure nahia.

• **Nolako gobernua osatu daiteke Elgoibarren?**

Elgoibartarrek aukeratzeko dutena sortuko da, baina egokiena, koloreen gainetik, herritarrei hitza emateko gaitasuna duen gobernu taldea izango litzateke. Desberdintasun sozialak murriztuz, Elgoibar moderno eta oparo baten alde lan egingo duen gobernua. Momentu honetan ez dut ikusten Ezker Batua EAJrekin gobernu taldean, desberdintasunak handiegiak dira gure artean. Ez dugu aterik ixten, baina gobernu ezkeriar bat nahiago genuke. Hala ere, gehiengo absoluturik ez egotea espero dugu.

• **Nola ikusten duzu herritarren partaidetza udaletxean?**

Lau urtean behin parte hartuta, herritarren partaidetza oso minimoa da. Udaletxea herritarrei maximora zabaldu behar zaie.

• **Etxebizitzaren gaia nola jorratuko duzue Ezker Batua-Aralarretik?**

Etxebizitzaren arazoa potoloa da Elgoibarren, asko eraiki da. Bizigune programa martxan jarri eta bultzatzea da gure asmoa. Batez ere alokairua bultzatzen saiatuko gara. Udalak ez du programa hau martxan jarri eta gure ustez garrantzitsua da. Horretarako 600-800 etxebizitza hutsen jabeekin hitz egin beharko genuke, eta etxe horiek alokairu sozialean jartzeko akordioak lortu. Ez zaigu normala iruditzen hianbeste etxebizitza hutsik egonda, be-

riak eraikitzen jarraitzea, nahiz eta horiek babes ofizialekoak izan. Hutsik dauden etxeak betetzea da gure nahia.

• **Euskararen alorrean pasu berriak eman behar al dira?**

Elgoibar ez da guk nahiko genukeen bezain euskalduna eta gure asmoa, herritarren %100ak euskaraz jakin arte lanean segitzea da, ez gara geldituko hori lortu arte. Badakigu oso zaila dela. Udalak euskara bultzatzeko martxan jarri dituen proiektu guztiak babestu ditugu eta berdin jarraituko dugu. Euskararen alorrean baten ideiak ez dira bestearenak baino hobeak, ideia guztiak batu eta martxan jarri behar dira. Euskara Batzordea herritarrengana zabaldu behar da: ikastetxeetara, kirol taldeetara... Euskara Batzordeari indar ekonomiko handiagoa eskaini behar zaio euskara bultzatzeko.

«Udaletxe itxi eta diktatorial batekin topo egiteak beldurtzen nau»

• **Zer egin daiteke etorkinak herritartze-ko?**

Gure ustez, etorkinak herritarrak dira, gainontzeko elgoibartarrek bezala. Ez dut uste beraiekin ezer berezirik egin behar denik, euren kexak eta beharrak gainontzeko herritarrenak bezala tratatuko ditugu. Zerbait egitekotan, hemengo jendea kontzientziazteko plan bat jarri beharko litzateke martxan, hau da, kanpotarrak bertakoak direla ulertarazi behar diegu herritarrei.

• **Alkate izango bazina, zer egingo zenuke merkadilloarekin?**

Dudarik gabe, merkadilloa herri erdigunera ekarriko nuke, hori argi daukagu. Gure ustez, merkadilloak herriari bizitza ematen dio, bai ostalaritzari, bai merkataritzari eta baita herritarrei ere. Elgoibarren kalitatezko merkadillo bat edukitzea lortu behar dugu, handiagoa eta ahal bada, beste genero batzuekin. Arazo hau gehiegi luzatu da.

• **Utopikoa al da herriko kaleak autorik gabe ezagutzea?**

Kaleak oinezkoentzako bihurtu, aparkalekuen arazoa konpondu eta trafikoa gutxitzeko mirariarik ez dago. Arazoa ez da gure herrikoa bakarrik, orokorra da. Lanean hasi behar gara, heritarren eta beste erakunde batzuen laguntzarekin irtenbideak topatzeko. Zer eta nola konpondu badago. Eskuartearen badiugu pare bat proiektu, baina arazo hau ez dago egun batetik bestera konponterik.

• **Zer eskainiko diezu etxeko nagusiei?**

Alor honetan lan egitea zaila da, izan ere, Foru Aldundiak dauka zaharren egoitzen kompetentzia. Aldundia presionatuko genuke gure herrirako egoitza modemo eta ekologiko batean inbertitzeko, egoitza modeloa izango litzateke. Honi lotuta, beste proiektu txiki bat daukagu: merkatariekin elkarlanean, erosketak egitera atera ezin daitezkeen herritarrei, telefonoz egiteko aukera eskaini nahi diegu. Baliabide ekonomiko eta pertsonalak jarriz, erosketak etxera eramango zaizkie.

• **Nolako imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?**

Modernoagoa. Eskuindarrek agintzen dutenetik Elgoibar betikoa da, ez da aldaketarik egon. Guk herri solidarioagoa, konprometitua eta ausartagoa egingo genuke. Orain herri gris da, guk koloretsuagoa egingo genuke.

• **Ezker Abertzalea ez bada aurkezten, zein izango da eragina?**

Eragina ikaragarria da. 1.000 botu inguru daude ezker abertzalearen bueltan eta ezingo dute iritzirik eman. Pertsonalki, eta Ezker Batuaren izenean ere, lotsagarria iruditzen zaigu alderdien legea, milaka urteko atzerapausua da. Penagarria da bozkatu ezin dutenentzat eta baita egunero politika egiten dugunontzat, guk ere sufritzen ditugu ondorioak. Ezkeriar moduan, oso tristea da, gauzak zaildu egiten zaizkigu.

HAUTAGAIAREN KINIELA:	
EAJ 6	EAJ 7
ANV 3	ANV (Baliogabetua)
PSE-EE 3	PSE-EE 3
EA 1	EA 2
PP 2	PP 2
EB 2	EB 3

[Hirigintza eta etxebizitza]



- Alde batetik oinarizko azpiegiturak herri guztira heldu daitezela egin behar dugu. Herriak biziak eta aldakorrak direnez, beharretara egokitutako azpiegitura sare bat garatu eta bermatu beharrean gaude. Bizi kalitatea hobetzera zuzendutako azpiegiturak eta plangintza desberdinak; birziklatzea eta berreskualapena, arkitektura oztopoak eta abar.

- Bestalde, azpiegitura berezi eta sendoagoak adosteko konpromisoa hartzen dugu EAJ-PNV taldetik. Adibidez Plaza Txiki ingurunea, Aita Agirre eraikuntza bame, kirol-aisialdi instalazioak egokitu, eta abar.

- Ez dugu etxebizitza ahaztu behar, bereziki gazteengan eta hauen bizitza antolakuntzan duen eraginarengatik. Erraza da hau honela adieraztea, baina etxebizitza premiazko ondasuna dugu, eta hau hala izanik, instituzio publikoetatik errazten jarraitu behar dugu. Alokairua, babes ofiziala, prezio egokitu edo beste edozein formularen bitartez, baina ezin dugu onartu gazteen emantzipazioa etxebizitzarengatik kolokan uztea.

- Mugikortasuna. Trafiko gutxiagorekin mugikortasuna hobetzeko lanean jarraituko dugu.

- Industria lurraren erabilgarritasun eta optimizazioa ezinbestekoak dira herriaren garapenerako, beti ere ingurumenarenganako errespetuz.

- Elgoibarren garrantzia handikoak dira auzoak. EAJ-PNV taldeak auzokideekin etengabe jardungo du lanean beharren azterketa egiteko.



Gure Udal taldeak alor honetan benetako ahalegina egingo du Babes Ofizialeko etxebizitzaren politika indartzeko, batez ere alokairuko etxebizitzari dagokienean. Pentsatzen dugu baldintza partikularrak gutxienez 2 urtetik behin berrikusi beharko lirakeela alokairuko etxebizitzaren kasuan.

Etxebizitza berriei dagokienez, beharrezko ikusten dugu, egingo diren etxebizitza berrien (Babes Ofizialeko zein libre) itxura eta planifikazioa zaintzea, eta horren alde lan egingo dugu hurrengo lau urteetan.

Hirigintzaren alorrean aparkamentuen arazoa iruditzen zaigu alor honetan herriak duen larrietasunakoa. Hori dela-eta, aparkaleku berrien sorreraren alde egingo dugu, eta arauak errespetatzeko ekimenak bultzatu, dauden aparkalekuen kudeaketa eta erabilera hobetze aldera.

Azken honekin lotuta, oinezkoentzako guneak ezin ditugu alde batera utzi, eta, horrek duen garrantzia kontutan hartuta, baliabideak jarriko dira gune horiek errespetatzeko, batez ere herri barruan eta oinezkoentzako ordutegian.

Parke eta bide gorrietaz hitz egitean, daudenak egokitu eta berriak sortzen ahaleginduko gera, pasiatzeko eta aisialdirako guneak beharrezkoak ikusten ditugulako herrian.

Gainera, adin guztietako jendeak beharrezkoak dituen esparru eta gune berriak sortu, eta daudenei erabilera egokia ematen saiatuko gera (hala nola: txiki-park, ludoteka, gazteleku, gaztetxea, zaharren egoitza...).



Herri batean, hirigintza saila, gauza guztien gainetik, funtzio publikoa da. Elgoibarko sozialistek Udala eta Eusko Jaurjaritzaren elkarlanaren aldeko apustua egiten dugu, bien artean, etxebizitza eskuragarri eta duinen faltari erantzuna emateko. Izan ere, etxebizitza hauen faltak gazteei eta gizarteko sektore ahulenei eragiten die, batez ere.

Hirigintza ordenantzen plan eta arauak berritzeko konpromisoa hartuko dugu, batez ere, etxebizitza duinak arazoizko prezioan elgoibartaren eskura jartzeko.

Elgoibarko sozialistek hirigintza politika berria proposatzen dugu, gure herriaren hazkunde ordenatu eta berezkoa bermatzeko, eta kudeaketa modu berri bat, gardena eta eraginkorra. Gauza hauek guztiak, ondorengo helburuak lortzera bideratuko genituzke:

- Komunitate osoaren garapen jasagarria hobetu.

- Gure herriaren hazkunde ordenatua bermatu.

- Etxebizitza eskuragarri eta kalitatezkoak lortu.

- Kudeaketa demokratikoa, gardena eta etikoki arduratsua.

- Gure auzoak (Sigma, San Pedro, Alzola...) berritu eta biziberritzeko programak: irisgarritasuna, segurtasuna, hobekuntza arkitektonikoak eta gizarte homidurak jartzeko.

Azken batean, Elgoibarko sozialistek politika berri bat nahi dugu etxebizitza duinak sortzeko. Horretarako, Udalari, Eusko Jaurjaritzari eta Foru Aldundiari Etxebizitzaren aldeko paktu bat egitea proposatuko diegu, etxebizitza eskubidea bermatzeko.



PNV-EAk etxegintza neurrigabea eta zentzugabea garatu du. Azken 5 urteetan 772 etxe eraiki dira, (VPOkoak 135 bakarrik), eta 639 etxe huts daude. Ez da beharren arabera egin, inbertsiozaleen, konstruktoreen eta espekuladoreen arabera baizik. Ekipamenduen beharra eta dagoenaren berritze beharra agerikoa da: zaharren egoitza, eguneko zentrua, frontoia, kiroldegia, Aita Agirreko eraikina, parking-ak... Hori guztia ahaztu egin dute, zulo bakoitzean etxeak jarri, eta herriaren garapena baldintzatuz.

1. Ez da etxe gehiago eraikiko beharren ikerketa sakona bideratu arte. Nolako Elgoibar nahi dugu? Galderari erantzun, Udalean herriarren arteko eztabaida eta partehartzea bideratuz. 1992tik aldatu gabe dauden arau subsidiarioak berritzeko ordua da. Baliabide publikoen egoeraren azterketa falta da. Gabeziak eta beharrak identifikatu behar ditugu: alde zaharrerako plan berezia, kirol baliabideen, aisialdirako guneen egoera, aterpedun jolastokien, gune ireki eta erabilera anitzekoen falta, industria lurren beharra... Etxegintza antolatua garatu, planifikatua eta heriarentzat aberasgarria, herriaren aukerak irekiz.

2. Etxebizitza sozialen aldeko apustua. VPOko etxeak, etxebizitza sozialak, baina ez etxe libreak egiteko aitzakia bezala, Etxebiden 403 herriar baitaude izena emanda.

3. Etxebizitza hutsen jarraipena eta merkaturatzea bideratu alokairuzko etxebizitza sozialak indartzuz. Batez ere gazteentzat, behartsuentzat, bakarrik bizi direnentzat, kanpotarrentzat, etxea erosi nahi ez dutenentzat...

Azken batez, beste modu bateko etxegintza politika herrikoa, hirigintza arrazional baten barne.



Garapen jasagarri eta orekatsua nahi dugu Elgoibarrentzat. Bizi, lan egin eta disfrutatzeko herri baten aldeko apustua egiten dugu Alderdi Popularretik.

Ezinbestekoa da guretzat auzoak hobetzea eta herriko etxebizitza zaharrak berritzea, bertan bizi diren herriarren bizi kalitatea jaitzi ez dadin.

Irisgarritasuna da gure beste helburuetako bat. Espaloietako barrera arkitektonikoak kendu, bide gaineko pasabideak egin, aldapa eta eskailera mekaniko gehiago jarri beharrezkoa den lekuetan eta igogailurik ez daukaten eraikuntza publiko eta etxebizitza zaharretan igogailua jartzen saiatuko gara.

Eraikuntzen beheko parteak eta lokal komertzialak etxebizitza bihurtzea da beste helburuetako bat. Hori neurtzeko ordenantza berri bat jarriko genuke martxan.

Etxebizitzen alorrean, Babes Ofizialeko Etxebizitzen eraikuntza ere bultzatuko dugu, beti ere, herriko ingurunea errespetatuz, eta batez ere, gazteei zuzendutako etxebizitzak egitea da gure asmoa.

Azken urteotan gazte askok erakutsi Elgoibarren bizitzeko asmoa, bai bertakoak direnak eta baita kanpotarrek ere bai. Gure nahia gazteen sektorea indartzea da, herrian geratu daitezela eta kanpotarrak hona etorri daitezen nahi dugu.

Azkenik, aparkalekuekin arazo handia daukagu Elgoibarren, baina inguruko zenbait herriaren demonstratu den bezala, arazo honek badauka konponbidea. Gure iritziz, lurrazpiko aparkalekuen eraikuntza da irtenbidea.



Hirigintza Batzordea, herria goitik behera aldatzeko gaitasuna duen Udaleko batzordea da, aldatetarako gaitasuna edukitzeak ematen dion garrantziari herriarren partaidetza erabiliz erantzun behar zaio.

Batzorde honetan urteetan zehar agindu dutenak betiko funtzionamendu berdinarekin jarraitu dute, hau da, rekaudaziorako griairekin.

Guk eskaintzen dugun funtzionamendua partaidetzarena da eta 4 zati desberdinetan ekarriko lituzke aldaketak.

1. Proiektuak kaleratu eta herri-tarrei aurkeztu, hauen aportazioak eta aldaketa nahiak batu eta gero iritien diren aukera desberdinetaz herriak erabaki dezala.

2. Elgoibarren dauden partidu politiko guztiei beharrezkoa den informazioa luzatuko genieke, denon artean arau subsidiario berri batzuk sortzeko eta hauen bitartez, Elgoibarko herriak bere nortasuna eta egokia den moduan hazteko behar dituen erremintak edukitze-ko.

3. Etxebizitzari dagokionez Bizi-gune programa martxan jarri. Herrian hutsik dauden 600-800 etxebizitzetako jabeekin akordioetara iritsi etxe horiek alokairu sozialetan kaleratzeko.

4. Herriari bizi kalitate hobea eskaintzeko asmoz egin nahi ditugun "indoor" eraikina eta auzo-etxea (centro civico) eraikitzeaz aparte, modu moderno eta ekologikoan egindako eraikinak izango dira, horrela herri polit eta erakargarriagoa egitearen hasiera izan dadin.

FRANCISCO JAVIER NUÑEZ

PPko hautagaia

«EAJrekin Gobernu Taldea osatzeko prest nago»

8 urtetan Soroluzeko udaletxean egon ondoren, Francisco Javier Nuñez eibartarra PP alderdiaren alkatetzarako hautagaia izango da Elgoibarren. Gure herria ondo ezagutzen duela ziurtatu digu, izan ere, urte asko eman baitzituen hemen lanean. Helburu garbiak ditu legealdi honetarako eta nagusia, herriarentzat onak diren proiektuak bultzatzea da.

• **Nolatan onartu duzu Elgoibarrerako PPko hautagaia izatea?**

Egia esanda, 10 egun behar izan nituen erabakia hartzeko. 8 urte Soroluzen egon ondoren, pena ematen zidan hura lagatzeak. 99an sartu ginen estreinakoz Soroluzeko udaletxean eta hango lana neuk egin dut. Baina alde onak eta txarrak aztertu ondoren, baiezkoa eman nuen. Elgoibar beste maila batean dago, beste modu batean esanda, bigarren mailatik lehenengo mailara pasatzea izan da. Debarrenako hiriburua izatea lotu behar dugu.

• **Zein garrantzia dauka zure bizitzan militantzia politikoak?**

Lehenengo postuan dago, esnatzen naizenetik loak hartu arte, ekintza politiko nire baitan dago. Duela 8 urte ez nuen honela pentsatzen. Orduan ikasleen entrenatzailea nintzen eta ez nuen uste

inoiz politikan sartuko nintzenik. 1995ean afiliatu nintzen, Gregorio Ordoñez hil zuten egun berean. Hilketak horrek izugarri eragin zidan eta horen kontra egiteko afiliatu nintzen. "Alderdi popularak lagun bat galdu du, baina beste bat irabaziko dute", esan nion neure buruari. 99an aurkeztu nintzen Soroluzen, baina seguruenik datorrena izango da nire azken legealdia, ez daukat politikaz bizitzeko asmorik.

• **Nolakoak izango dira datozen lau urteak?**

Politika mailan konplikatua izango direla uste dut. Maila pertsonalean, ordea, espero dut arazorik ez izatea, desberdintasunak alde batera utzita, bizilagunen beharrek batu behar gaituzte.

• **Zeri diozu beldur udaletxean sartzeko orduan?**

8 urteren ostean, ez nau ezerk beldurtzen. Hasierako urteetan kezka gehiago nituen, baina orain gauza asko ikasi ditut eta errespetua baldin badago, gauzak ondo egin daitezke.

• **Alkate izango bazina, zein izango lizateke zure lehen erabakia?**

Udaletxe eta herritarren arteko komunikazioa sendotzeko bideak jarriko nituzke, hori ezinbestekoa da. Herritarrek beraien beharrak azaldu behar dituzte udaletxean. Udaletxea herritarren zerbitzura egon behar da. Oso garrantzitsua da herritarrek euren beharrak jakinaraztea, irtenbideak denon artean bilatzeko. 8 urtetan ez zait inor etorri Soraluzen. Espero dut Elgoibarren jendeak beldurrik ez edukitzea PPko zinegotziarengana etortzeko. Nik publikoki salatuko dut gaizki iruditzen zaidan guztia, Soraluzen horrela egin dut eta bide beretik jarraituko dut.

• **Zein motako gobernua osatu daiteke Elgoibarko udaletxean?**

Ez da gure esku egongo aukeratzea, baina negoziatzeko deitzen banaute, ez dut ezetzik esango. Alderdi guztiak ordezkatzeko dituen Udal Gobernua izan daiteke aukera bat, edo bestela, zure ideietatik gertuen dauden alderdiekin osatutakoa. Ni EAJrekin agintzeko prest egongo nintzateke. Ideologia politikoak desberdina da, baina herrilariak batu egin behar gaitu. Politika kontuetan Ezker Abertzalea eta PP dira kartak argi erakusten duten bakarrik. Ekarpen garrantzitsuak egin ditzakegula uste dut. Herriarentzako interesgarriak diren proiektuak babestu egingo ditugu, proposamena luzatzen duen alderdiaren kolorea kontuan hartu gabe. Gustatuko litzaidake gainontzeko alderdiek irizpide berbera jarraituko balute, hau da, PPtik ateratzen diren proposamenak izan arren, herriarentzat onak badira babestea eskatuko nuke. PPkoak proposatu duelako bakarrik kontra bozkatzen badute, arazoa izango ditugu.

• **Etxebizitzen alorrean, zein izango da zuen politika?**

Araza honi aurre egin behar diogu, jende askok ezin baitu etxebizitza bat erosi. Gure helburua, ahalik eta lur gehiena Jaurritari eskaintzea da, Babes Ofizialeko Etxebizitzak egin ahal izateko. Alokairua ere bultzatu behar da, etxe jabeek eta alokairuan biziko direnei erraztasunak emanaz. Bestalde, dauden etxebizitza zaharrak berritu egin behar direla uste dut. Niri esate baterako, asko gustatzen zait Iñiguez de Karkizano ingurune hori, eta hor badakit ez dagoela igogailurik, eskilara asko da-

goela... honelako etxeetan bizi direnei, nagusiei batez ere, bertan bizitzen jarraitzeko aukera eskaini behar zaie. Gizartea gero eta zaharragoa da eta beraien etxean bizi ahal izateko erraztasunak jarri behar zaizkie.

• **Zer eskainiko die zure alderdiak herriko nagusiei?**

Eraztasunak eskaini behar dizkiegu. Telealarma zerbitzua, teleasistentzia... Nagusiak zaintzen dituzten senideak ere kontuan hartu behar dira eta beraien laguntzeko programak sortu. Herri barruan ibiliko den autobus zerbitzu baten beharra ere ikusten dugu, auzoak gerturatuko dituen, Sigma, San Pedro, Altzola... Bestalde, auzo desberdinetan, nagusiak bildu ahal izateko egoitza txikiak jarriko nituzke, herri erdigunea batzuentzat urrun gelditzen da. Zaharren lekuan jartzen naiz eta niretzako nahiko nukeena eskaini nahi diet.

«Argi laga nahi dut PP ez dagoela euskararen kontra»

• **Merkadilloaren gaiari dagokionez, zein da zure iritzia?**

Niri merkadilloa izugarri gustatzen zait, eta dudarik gabe, merkadilloa herri erdian egon behar da. Merkadilloak herriari bizitza ematen dio eta jendea gustatu egiten zaio. Batzuk diote dena zikin lagatzen dutela, baina horrek irtenbide erraza dauka: saltzaileak joan bezain pronto, garbitzaileak lanean jartzea.

• **Trafiko eta aparkaleku arazoarentzako irtenbiderik?**

Aparkaleku arazoa herri guztietan dago, baina irtenbideak aurkitu daitezke. Gure ustez, lurrazpiko aparkalekua da soluzioa. Aita Agirre plaza oso gune interesgarria da. Lurrazpiko aparkalekua egin daiteke, gainean parke bat, merkadilloa bertan jarri eta eskolen eraikuntzan kulturagune berri bat. Honekin batera, auzoetan aire libreko aparkalekuak egin behar dira.

• **Zer egin daiteke etorkinak herritartze-ko?**

Gai honetan ez nago oso jantzita, baina nire ustez, etorkinak beharrezkoak dira, hemengo jendeak lan asko ez ditueako egin nahi. Euskara ikasteko, lanbideak ikasteko eta herritartzeko programak jarri behar zaizkie eskura. Hemengo biztanleen eskubide berberak eman behar dizkiegu, baina aldi berean, betebeharrak ere eskatu behar zaizkie. Etorkin batzuk konfliktiboak dira eta ezin zaie laga nahi dutena egiten.

• **Euskarari dagokionean, zein da zuen politika?**

Argi laga nahi dut Alderdi Popularra ez dagoela euskararen kontra. Euskararen aldeko proiektu asko dago martxan eta babestu egingo ditugu. Niri gustatuko litzaidake euskaraz hitz egitea, baina ez dakit. Euskaraz ez dakiten zinegotziak eskalduntzeko programaren bat eskatuko nuke udaletxean. Euskaltegiak hor daude, baina dena iristeko denborarik ez dago.

• **Ezker Abertzalea hauteskundeetan ez egoteak zein eragin izango du?**

Bat ere ez. Nik ez daukat hor zeresanik, nik epaitegien erabakia onartuko dut. Zerrrenda horiek ilegalizatzen badira, zerbaitetik izango da. Herritar batzuk esango dute ezin izan dutela aukeratu. Eskatu diezaietela alderdi horri biolentzia kondentatzeko, eta horrela euren nahi dutena bozkatu ahal izango dute. Dena dela, alkatea herritar guztiena da, eta ideologiak alde batera utzita, guztien ahotsa entzun behar du.

• **Nolako imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?**

Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiagorekin, batez ere. Gazteak nahi ditugu herrian eta horretarako etxebizitza sozialak ezinbestekoak dira. Elgoibar hobea imajinatzen dut, Eibarren aurretik egotea lortu behar dugu. Gipuzkoan gure herria gauza positiboengatik entzuna izatea.

HAUTAGAIAREN KINIELA:
EAJ 8
PSE-EE 2
EA 3
PP 3
EB-ARALAR 1

Posta bidezko botoa

Maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeak gerturatzen ari dira, eta Alderdi Politikoak gaur hasi dira botoa eskatzeko kanpaina egiten. Ezker Abertzaleak posta bidez bozkatzeko aukera eman nahi die egun horretan botoa ematera joan ezingo direnei. Tramite honi buruzko informazioa eskainiko dute Kimetz Elkartean, gaur, maiatzaren 14an eta 15ean 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, bihar ANV alderdiaren alde Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa antolatu dute. Arratsaldeko 16:00etan aterako da Plaza Handitik.

Eusko Alkartasunaren mitina

Elgoibarko Eusko Alkartasunak kanpaina hasierako mitina eskainiko du gaur arratsaldean. Hizlariak Iñaki Galdos eta Jon Peli Uriguen (alkatetzarako hautagaia) izango dira. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Elgoibartarrekin osatu du Udal Hauteskundeetarako zerrenda EB-Aralar koalizioak



Ezker Batua-Aralar koalizioak ere, egin du bere zerrendaren aurkezpena. Unai Zulaika izango da alkatetzarako hautagaia. Elgoibartarrekin osatu dute zerrenda guztia, baina emakumeen partaidetza bermatzen duen legea bete ahal izateko, kanpotar batzuk sartu behar izan dituzte zerrendan, eta elgoibartar batzuk beste herrietako zerrendetan joan dira. Gogora dizagun zein di-

ren EB-Aralar koalizioko hautagaiaik: Unai Zulaika, Izaskun Soraluze, Guillermo Mekolalde, Irene Merino (kanpotarra), Jose Antonio Eugi, Izaro Etxegibel, Emiliano Sierra, Ander Oñederra, Juan Rodriguez, Lourdes Ortiz (kanpotarra), Laura Ortiz (kanpotarra), Carlos de La Hoz, Mari Jose Mentxaka (kanpotarra), Manuel Polo, Juanjo roldan, Aitor Alava eta Josefina Pino (kanpotarra).

eteo
ETEO, KOOP. E.

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA

Zatoz gu ezagutzera!

**ATE IREKIAK
MAIATZAREN 16an 18:00etan**

**AURREINSKRIPZIO EPEA:
EKAINAREN 1etik 7ra**



Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

On informatika-REN ESKUTIK

INTERNETEKO HIZKERA?

Internet izugarritzko komunikabidea bihurtu da azken urteotan, eta bertan komunikatzeko era asko daude: berehalako mezularitza (msn messengerra adibidez), foroak, blogak, e-posta, txatak... Eta gure lagun edota inguruko jendearekin komunikatzeaz gain, munduaren edozein txokotan dagoen ia edozeinekin komunika gaitzke, bai jendea ezagutzearen, edota zerbaiti buruz laguntza edo informazioa eduki nahian.

Baina interneteko komunikazioak badu traba bat: momentuz; % 98an idatzia da. Eta sakeleko telefonoen garai honetan ez gaude idaztera ohituta. Horren ondorioz interneteko komunikazioa askotan zaila izaten da.

Interneten idazterako orduan badira arau batzuk, inork ezarri ez dituenak, baina internetlari guztiok errespetatu beharko genituzkeenak, irakurtzean asko eskertzen baita. Edo saiatu behintzat:

- Idatzi ezazue minuskulaz, zeren eta maiuskulaz idatziz gero, GARRASIKA ARI ZARETELA ESAN NAHI DU.
- Erabiliitazuepuntuaziomarkakaskozho-beadelakodenontzatbestelaosozaileagindaitekegauzakulertzeajendeaezdzukidatzitakoadesfrizatzenaiatuko
- Ez ezzue idtz mblko mzk mdun, zrn t bntn kstzn da hrlko gzak irktzia kdgo hau dszfrtzea ornkl knplktgoa d



Eta foroetan laguntza bila galdetzeraz animatzen bazara, kontutan hartu:

- Zure arazoa beste norbaiti pasatu zaio, ia ziur, beraz, begiratu ondo ea nonbaiten erantzuna aurki dezakezun
- Gaien izenburu moduan ez erabili "Laguntza Mesedez!!!!11" edo "Arazo bat daukat!!!!11" modukoak. Izan daitezela arazoaren deskribapen motzak.
- Saiatu arazoa azaltzean ahalik eta ze-

hatzena izaten, gogoratu galdera zenbat eta hobeto planteatuta egon, erantzuna bere tamainan etorriko dela.

- Izan errespetagarria jende guztiarekin, eta alde zuzenetik eman eskerrak. Askotan inportatu duen detaile bat da.

Saiatu arau hauek errespetatzen, denon onurarako delako, eta internet leku erosago bat bihurtu dadin.



INFORMATIKA

DENDA
Lerun industrialdea, 6

ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3

ELGOIBAR

Tel.: 943 74 02 40
E-posta: info@elgoi.net.es



Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com



Softlan
analisis & programazioa

Antonio Arrillaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@softlan.biz

www.softlan.biz



ZAZPI
INFORMATIKA

zazpi@telefonica.net

Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxo: 943 74 37 87

EUSKAL JAIEN MENDEURRENA

Maiatzeko ekitaldietan herritarren parte hartzea eskatu du Udalak

Euskal Jaien mendeurrena gogoratze-ko antolaturiko egitarauak bere horretan aurrera dihardu. Horren adierazgarri, atzo, Arkaitz Basterra zuzendari zomotzarraren "Agian" filma proiektatu zen Herriko Antzokian. Bihar berri, "Lamien Basoa" haurrei zuzendutako dantza ikuskizuna eskainiko da "Gero Axular dantza taldearen" eskutik. Honako emanaldia, Herriko Antzokian egingo da (18:30), eta sarrera debaldekoa izango da.

Maiatzerako gainerako ekitaldiak

Ane Albusuk baserriarren arropak izango ditu hizpide hilaren 24an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan ospatuko den hitzaldian

(19:00). Bertan, baserriar arropak nola jantzi, atondu eta egoera bakoitzera egokitutako jantzi proposak hautatu zein soinean eramateko argibideak azalduko ditu.

Hilaren 25ean, berri, Oskorri & The Pub Ibiltariaren 11. kontzertua izango da, Herriko Antzokian eta gaueko 22:15ean. Kontzertu horretara joan nahi duten helduek, 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta 16 urtera arteko haur eta gaztetxoek, berri, 3 euro. Sarrerak aurrez eros daitezke Euskara Sailean eta Gazte Informazio bulegoan. Bukatzeko, aipatu, Elgoibarko Udalak dei egiten diela herritar guztiei, Euskal Jaien mendeurrenaren baitan antolatutako ekintzetan parte har dezaten.



Elgoibartar dantzariak Auresku eta Soinu Zahar txapelketako finalean

Domeka honetan, Legazpiako plazan Auresku eta Soinu Zahar txapelketako finala jokatu da goizeko 11:00etatik aurrera. Bertan parte hartuko duten dantzari elgoibartarrak honakoak dira: A mailan, Ane Espilla, Iraitz Gonzalez, Nerea Perez eta Nora Bastida. B mailan berri, Maria Ferreiro, Itziar Aldalur, Amaia Astigarraga eta Arantxa Ferreiro. Mutilen finalari dagokionez, esan, maiatzaren 19an Erreterian izango dela 17:30ean eta Niessen edifizioan. Hemen, Aitor Asenjo eta Imanol Iturrino elgoibartarrak airtuko dira.

Jose Manuel Esnal elgoibartarraren kartelak iragarriko du aurtengo Trinitate jaietako tanborrada

Pasa den ostiralean jakin genuen zein izan den urte honetako Trinitate jaietako tanborrada kartel lehiaketaren irabazlea. Jose Manuel Esnal elgoibartarra, hain zuzen ere. Bere kartelean, tanborradako bi protagonisten aurpegiak uztartu ditu: soldadu eta sukaldariarena. Lan koloretu honi esker, 300 euro poltsikoratu ditu.

Saria Igor Palomino, kultura zinegotziaren eskutik jaso zuen, iragan den ostiralean. Ez da elgoibartarrak lehen aldiz

parte hartzen duen lehiaketa. Iaz, esaterako, San Bartolome jaietako egitarauaren portada hautatzeko lehiaketan bigarren postua eskuratu zuen. Modu berean, aurtun, San Fermin jaietako kartel iragarlea hautatzeko lehiaketara ere, lan bat bidali du.

Gogorazi, Trinitate jaietako tanborrada ekainaren 2ean izango dela eta egun hori girotzeko eta kolore apur bat emateko, zapi urdinak salgai jarri dituzte bi euroren truke.





Jaia Laiak eta **berria**ren eskutik

'Musika Munduko Jolastokian'

Gaztetxoak eta helduak
elkarrekin dantzan!

Osatu
bilduma

Maiatzaren 5etik aurrera
larunbatero disko bat kioskoan



Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

- EUSKAL HERRIA J.C.Perez: *Flannery eta bere astakiloak*
- JAMAICA Cedella Marley-Booker with Taj Mahal: *Smilin' island of song*
- EUSKAL HERRIA Jabier Muguruza: *Ja, ja*
- LIVERPOOL The Beatles songs: *All you need is love*
- KUBA Liuba Maria Hevia: *Travesía mágica*
- HEGOAFRIKA Ladysmith Black Mambazo: *Gift of the tortoise*
- NEW ORLEANS Buckwheat Zydeco: *Choo choo baagaloo*
- MEXIKO Los Labos with Lalo Guerrero: *Papa's dream*

HARPIDEDUNENTZAT,

%20 merkeago

Eskaria egiteko: 943 30 43 45

Harpideduna ez bazara, egin zaiter **BERRIA**ren harpidedun, hilean 27 euro bakarrik ordainduta*, egunero etxean hartuko duzu egunkaria, eta duan izango duzu bilduma hori.



+ 5,30 €

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

ESKUBALOIA

Tecnifuelle eskubaloi taldeko senior mutilek igoera lortu dute



Tecnifuelle eskubaloi taldeko senior mutilek mailaz igozea lortu dute. Agerian utzi zuten beraien joko ona, iragan den astebukaeran Colindresen jokaturako partidetan. Ostiraleko aurreneko norgehiagoka irabazi ondoren (Tecnifuelle 26-Calensancio 20), zapatuko neurketa berdintzea lortu zuen Colindres taldearen aurka 24 goletako berdinketa lortu ostean. Baina, domekako partida izan zen zinez, Igoera Faseko partidarik erabakigarriena. Tecnifuelle taldekoek Seis Do Nadal talde galiziarri irabaziz gero, Nazional Mailara igotzeko aukera eskura zuen. Partida bukatzeko 8 segunduren faltan, ordea, gauzak dexente estutu ziren, galiziarrek 24na berdintzea lortu baitzuten. Hurrengo jorkaldian, baina, Joseba Sagasta elgoibartarraren gol bati esker, garaipena Tecnifuelle taldearentzat izan zen eta baita, igoera ere. Colindresera hurbildu ziren 150 zaletuen artean zoramena piztu zen eta jaiak Elgoibarren jarraitu zuen.

“XVIII. Elgoibarko Lagun Taldea saria” zapatuan jokatu da

Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari taldeak antolatutako, datorren zapatuan, maiatzaren 19an, “XVIII. Elgoibarko Lagun Taldea saria” kadete mailako txirindulari proba jokatu da. Irteera goizeko 10:30ean izango da, Foruen Plazatik eta helmuga Santa Klara kalean. Guztira, 48 kilometrotako ibilbidea egingo dute txirindulariek.

Elgoibarko Lagun Taldeak zozketatu duen bi lagunentzako afariaren zenbakia, beriz, hauxe izan da: 714.

Azkoitiko IV. Rallysprint proban Ramon Apalantzak lortu zuen garaipena

Azkoitiko Rally sprint-aren IV. edizioa jokatu zen zapatuan, Lagun Artea elkarteak antolatutako. Zirkuitua, Azkoitia eta Elgoibar lotzen dituen Azkarateko errepide zaharra izan zen. Garaipena Ramon Apalantza auto gidariarentzat izan zen; Mitsubishi WRC autoarekin, denborarik hoberekin egin zuen. Zirkuituko hiru zatietan buruturiko denborak batuta, 10 minutu eta 30 segundu, hain zuzen ere. Bigarren sailkatuari, Peugeot 307 WRC autoa gidatzen zuen Santi Artetxeri 12 segundutako alde atera zion. Hirugarren postuan, bes-



talde, Ricardo Tricio sailkatu zen, Mitsubishi EVO VI autoarekin eta 10:49:30eko denborarekin.

“Mont Blanc 2006: 4 bide Euskal Herriko emakumeentzat” emanaldia datorren asteazkenean



Morkaiko M.E. ak antolatutako Udaberriko mendi emanaldiak bere hondarrera iritsi dira. “Mont Blanc 2006: 4 bide Euskal Herriko emakumeentzat” izenburupeko saioak itxiko ditu udaberriko mendi emanaldiak. Maiatzaren 16an eskainiko da azken saio hau, Musika Eskolan eta ohiko orduan, 21:30ean. Oraingo aldi honetan, saio honen ardatza, 19 emakume euskaldunek Mont Blanc-eko gailurra egitea lortu zutela izango da. Abiapuntu gisa, 40 urtetik gorako emakume euskal-

dunek beraien aisialdiaz gozatzeko aukera ezberdinak aldarrikatzeko nahiak bultzaturik, mendi ekintza hau aurrera eramane zuten eta gainera, 4 bide desberdin erabili zituzten horretarako. Denek tontorrean egin zuten topo. Tartean, 4 elgoibartar izan ziren ekimen hartan: Lurdes Zubiaurre, Lorea Vila, Arrate Zubia eta Marije Mendikute. Ez da sarritan gertatzen dena, 40 urtetik gorako 19 emakume MontBlanceko puntan biltzea. Guzti hori erakutsi eta azalduko digute.

FUTBOLA

Itziar Gurrutxaga eta Eli Ibarra Super Ligako txapelkun Athleticekin

Emakumezkoen Athletic taldeak laugarren Superliga eskuratu du, pasa den domekan, San Mamesen jokaturako ligako azken partida berdindu ondoren. Bi elgoibartar atera ziren San Mameseko berdegunera: Itziar Gurrutxaga (kapitaina) eta Eli Ibarra. Bientzat, irabazten duten laugarren Superliga izan da.

Torrejonen aurka domekan, San Mamesen jokaturako ligako azken partida husnako berdinketarekin amaitu eta gero irabazi dute txapelketa zuri-gorriek. Izan ere, Espanyol-ek, liga irabaz zezakeen beste taldeak, Rayo Vallecanoren aurka etxean galdu (3 eta 5) baitzuen. Itziar Gurrutxaga eta Eli Ibarra eginiko adierazpenta, aurten sekula baino gehiago kostatu zaiela Superliga irabaztea aitortu dute eta era berean, urte honetan Superligan parte hartu duten



taldeen mailak nabarmen egin duela gora adierazi dute.

Bukatzeko, San Mamesen 30.000 zale-turen aurrean jokatuak sorrarazi ziren zirra-ara azpimarratu dute bi elgoibartarrek.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

- Elgoibar 1 - S. T. Lizeo 2 (O. infant.)
- Elgoibar 3 - Beti Gazte 0 (kad.)
- Elgoibar 0 - Beti Gazte 1 (jub.)
- Elgoibar 6 - Urki 0 (neskak)
- Elgoibar 3 - Beti Gazte 0 (1. erre.)
- Elgoibar 4 - Hemani 2 (infant. txiki)

ARETO FUTBOLA

- Apel Getxo 0 - Kenci 3 (Euskal Liga)
- Tecnun 6 - Kenci 3 (2. maila gipuzk.)
- Relojes Mondaine 4 - Zarautz 1 (gipuzk. jub. kopa)
- Anoetako Gazte Asanblada 5 - Elgoibar 5 (gipuzk. jub. kopa)

ESKUBALOIA (IGOERA FASEA)

- Tecnifuelle 26 - Calansancio 20
- Colindres 24 - Tecnifuelle 24
- Tennifuelle 25 - Seis Do Nadal 24

ESKU PILOTA

- Aretxabaleta 18 - Lagunak 22 (nagus.)
- Lagunak 5 - Eskoriatza 22 (jub.)
- Lagunak 13 - Arrasate 22 (kad.)

Eskualdeko X. Futbol 7 Txapelketa ekainaren 2an hasiko da



Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatzen duten X. Eskualdeko Futbol 7 Txapelketan parte hartzeko izen ematea maiatzaren 8tik 29ra egin ahal izango da Olaizaga eta Ipuru kiroldegietan. Prezioa 55,85 eurokoa izango da eta gehienez 20 talde onartuko dira.

Partiduak Mintxetan, larunbatetan, eta Unben, igandetan, jokatuko dira. Ekipoak 4 taldetan banatuko dira liga fasea jokatzu eta talde bakoitzean sailkatzen diren aurrengo bi ekipoek kopa fasea jokatu dute (final zortzirenak, laurdenak, erdiak eta finala). Txapelketa ekainaren 2an hasiko da eta uztailearen 12an jokatuko dira finalak.

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

- Zapatua, 12
- 16:30 Haundi - Beasain

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

- Zapatua, 12
- 13:00 Relojes Mondaine - Elgoibar (Jub. Kopa)
- 16:00 Kenci - Kanikas (Euskal Liga)

ESKU PILOTA Ikastolako frontoian

- Barixakua, 11 Herriarteko txapelketa
- 21:30 Elgoibar - Azkoitia

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen 4 HILABETEKO AMATASUN BAJA betetzeko

EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

Merkataritzaren normalizazioaren arloan egun osoko jardunean lan egiteko.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: maiatzak 25.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR
 Informazio gehiago: Tel.: 943 74 17 46 (Amaia) • E-posta: gureanbai@elgoibarkoizarra.com

[ZORIONAK]



▶ Otar bete lore maiatzeko liririk politenari. Zorion bikoitzak. Ondo pasa igande!an!



▶ Zorionak **Irene** zure lehen jaunartzean. Maria, Celia, Marina eta Jararen partez. Ondo pasa!



▶ Zorionak **June!** Heldu da 5 kandela itzaltzeko eguna! Etxeoen eta bereziki, Lukenen partez.



▶ Zorionak **Manex!** Txokolateko muxu bat ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Iker** hilaren 5ean 5 urte egin zenituelako. Senideen eta bereziki, Julen eta Asierren partez.



▶ Zorionak **Helene** bihar urte 1 egingo duzulako. Muxu handi bat guraso eta Danelen partez.



▶ Zorionak **Malen** bihar 2 urte egingo dituzulako. Familiakoan, bereziki, Maddi eta amama.



▶ Zorionak etxeko bitxologoari. Asteazkenean 6 tirakada! Ondo pasa eta mila-muxu etxeokoen partez.



▶ Zorionak **Julen** hilaren 16an 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Iñigoren partez.



▶ Zorionak **Iker!** Ostegunean 11 urte! Nortzuk garen? Oier eta Iker! Ondo pasa eguna.



▶ Zorionak **Yanela Haizea** hilaren 9an 3 urte egin zenituelako. Aiton-amona eta osaba-izebak.



▶ Zorionak **Maiden** hilaren 8an 7 urte egin zenituelako. Familiakoan, bereziki, Eneritz eta Arkaitzen partez.



▶ Zorionak **Egoitz** asteartean 9 urte egingo dituzulako. Etxeokoen, eta bereziki, Irtati eta Arkaitzen partez.



▶ Zorionak **Egoitz!** Ondo pasa zure jaunartze egunean familiakoekin. Muxu bat, guapo!



▶ Zorionak hilaren 3an 3 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen!



▶ Zorionak **Izaro** maiatzaren 9an 3 urte egin zenituelako. Guraso eta senideen partez.



▶ Zorionak printzesa hilaren 14an 3 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat etxeokoen partez.



▶ Zorionak **potxoliti!** Mereziduzula, karo baietz! Segi horrelako lagun ona izaten. Laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Narrea** hilaren 13an urte bat egingo duzulako. Guraso, osaba-izeba, Uraitz eta Garazi.



▶ Zorionak gure kaskamotz! Familiakoan eta bereziki, Uraitz eta Garaziren partez.



▶ Zorionak **Kenya** hilaren 2an 26 urte egin zenituelako. Alaba Anadelaren partez. Asko maite zaitut!



▶ Zorionak **Aimar** hilaren 4an 3 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.




▶ Zorionak gure etxeko morroskoari asteartean 3 urte egingo dituelako. Muxu potolo



▶ Zorionak **Ane** atzo zure eguna izan zelako. Familiakoan, koadrilakoan eta bereziki, unairen partez.



▶ Zorionak **Amara** hilaren 8an 8 urte egin zenituelako. Etxeokoen partez.



▶ Zorionak **Garazi** zapatuan 12 urte egin zenituelako.



▶ Zorionak **Unax** bihar 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Eneko** hilaren 10ean 4 urte beteko dituzulako.



▶ Zorionak **aitatxol!** Asko maite zaitugu. Amatxo eta Irune.



▶ Zorionak **Unai** zure 3. urtebetetzean. Muxu potolo bat familiakoan partez.



▶ Zorionak **Aitor eta Ana Mari!** Etxekoen partez, ondo pasa!



▶ Egun atsegina izan dezazuela igandean. Muxu handi bana asko maite zaituzten lagun batzuen partez.



▶ Berandu, baina zorionak **bikote!** Ikastolako laguntxo-en partez, muxu handi bana.



▶ Zorionak **Ion eta Itziar!** Egun ona pasa bihar! Etxekoen partez.




▶ Zorionak elgoibartar eta ondarrutar txintxoei, zuen 5. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Nerea eta Aitor!** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Jarraitu beti bezain jator, bikote!



▶ Zorionak **laukote!** Igandean jaunartze zoragarria izan dezazuela. Etxekoak eta lagunak.



▶ Zorionak **Mikel** hilaren Sean 15 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.

▶ Zorionak **Lorea Urain** gaur urte bat egin duzuelako. Etxekoen partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]

13 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ

11 Fernandez
 12 Yudego
 13 Yudego
 14 Zabaleta
 15 Etxeberria (*Errosario*)
 16 Ibañez
 17 Bidasolo
 18 Etxeberria (*Santa Ana*)

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

Bokatak • Plater konbinatuak • Terraza edarra

ORAIN, OILASKO ERREAK
EGITEN DITUGU ENKARGUZ.

Basarte kalea, (IMH ondoan) • Tel.: 943 74 04 04

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxebizitza salgai Altzolan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta lursail txiki bat kanpoaldean. Bizitzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **619812448/676136199**

▶ Duplex-a salgai Artetxen. 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Eguzkitsua. 195.000 euro. ☎ **696266982**

▶ Etxea salgai Urasandin. Bizitzera sartzeko. Duplex. 94m². Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela, despentsa, berogailua, dena kanpora. 237.399 euro/39, 5 milioi pezeta. ☎ **943740865**

▶ Etxea salgai Erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukalde-angela. 120m². Gas naturala. 60m²ko ganbara. ☎ **943741769**

▶ Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukaldea. 2 komun eta arropa esekilekua. Garajea eta ganbara. ☎ **943740194**

▶ Urruzunon etxea salgai. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa eta irudiak ikusteko: www.esnips/web/etxepolita.com ☎ **660884060**

▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

ALOKAIRUA

▶ 19 urteko mutil frantsesak familia euskaldun batean ostatua ordainduko luke. Ekainean. Logela eta gosarifa-riak. ☎ **628087042 (Edu)**

▶ Logelak ditut alokatzeko. ☎ **943744329**

▶ Logela alokatzen dut.

☎ **943741881/635206436**

▶ Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699486458**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an.

☎ **943743427**

▶ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. ☎ **628764686**

[AUTOAK]

▶ Peugeot 306 familiarra salgai. 1.900 turbo diesel. 98koa. 170.000km. Egoera onean, beti garajea.

☎ **610074096/943033613**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaindu, kamarero, sukaldari laguntzaile... ☎ **626394831**

• Alzheimerra duen pertsona zaintzeko emakume euskalduna prest. ☎ **943742330/660511781**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **626767586/943531903**

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Egun erdiz.

☎ **608623606 (Olivia)**

• Neska ingelesa au-pair bezala umeak zaintzeko prest, iraitetik abendura. Nire erreferentziak El-goibarko familiak ditu. (Molly)

☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna.

☎ **638527915/943530132**

• Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, zikloak eta moduloak. Zientzia arloan. ☎ **653717972**

• Klase partikularak ematen ditut. LH eta DBH. ☎ **943531054**

• Neska lanerako prest.

☎ **663569263/676853028**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **607780679 (Reina)**

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Egunez. Esperientzia.

☎ **636120425**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest.

☎ **606169667**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **671476869**

• Mutila igeltsero lanetarako prest. ☎ **6620263424**

• Pertsona kamarero edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest.

☎ **649368137**

• Neska umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **697431326**

• Mutila lanerako prest.

☎ **638465098**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Eraikuntzako 2. mailako ofiziala lanerako prest.. ☎ **661225149**

• Mutila kamarero, igeltsero zaintzaile edo garbiketarako.

☎ **650813847**

• Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **667709439**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako prest.

☎ **666110602**

• Neska umeak zaintzeko prest.

Esperientzia. ☎ **627437179**

• Neska lanerako prest.

☎ **699813826**

• Mutila igeltsero, enkofradore edo seguritate lanetarako prest.

☎ **943172896 (Iosu)**

• Neska lanerako prest.

☎ **667806119**

• Emakumea egunez edo gauzez lan egiteko prest.

☎ **943172896 (Mertxe)**

• Biokimikan lizentziatuak klase partikularak ematen ditu. Mate, fisika, kimika, ingeles, biologia...

☎ **675703356 (Nerea)**

• Neska garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **650817847**

• Emakumea ostalaritzan edo garbiketarako prest. ☎ **666032715**

• Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ **638527915**

• Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest.

☎ **638494501**

• Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **638515953**

• Mutila lanerako prest.

☎ **654604798**

ESKAINITZA

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaileak behar dira.

☎ **620810120**

• Kamareroa behar da asteburuetarako. ☎ **943531771**

• Kamareroa behar da tabernarako. Kontratuarekin.

☎ **670250429**

ABISUAK

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaileak behar dira.

☎ **943121262**

▶ 2. eskuko bizikleta erosiko nuke. ☎ **653733217**

☎ **653733217**

[11 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19:00 EA-REN KANPAINA HASIERAKO MITINA

Hizlariak: Inaki Galdos eta Jon Peli Uriguen

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

22:00 "LA ESPERA" IKUSKIZUNA

Taldea: Ohiulari Clown

Kultur Etxeko sotoan

Elebietan

Antolatzailea: Haizea Emakume

Taldea

[12 ZAPATUA]

12:30 EAE-ANV AURKEZPEN

EKITALDIA

Zerrenda zein herri programaren nondik norakoak azaldu eta denon arteko argazkia aterako da.

Plaza Handian

Bilboko manifestaldirako autobusa

16:00etan Plaza Handitik

17:30 HIRU TXIRLO BOLO

TXAPELKETA

Gipuzkoako 38. Hiru Txirlo Bolo

Txapelketaren saioa

Idorbe (San Pedro) auzoko

bolatokian

18:30 "LAMIEN BASOA"

Dantza ikuskizuna

Taldea: Gero Axular dantza taldea

Herriko Antzokian

Sarrera: doan

Antolatzailea: Kutxa

Laguntzailea: Emudafe

[14 ASTELEHENA]

14:15 eta 15:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTU PEDAGOGIKOA

Chopin Studios-eko Xabier

Lizasoren eskutik

Musika Eskolako auditorioan

4, 5 eta 6 urteko herriko

ikastetxeetako ikasleentzat

[16 EGUAZTENA]

21:30 UDABERRIKO ASTEAZKENETAN MENDI EMANALDIAK

"Mont Blanc 2006-4 Bide Euskal

Herriko Emakumentzat

Musika Eskolako auditorioan

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

[18 BARIKAKUA]

17:30 HAMAIIKA KOLORETAN DANTZAN

Taldea: Zenbat Gara antzerki taldea

Kiribilka programaren baitan

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

ZINE KARTELEDIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«El buen pastor»

11, barixakua: 22:15

12, zapatua: 19:30-22:15

13, domekia: 19:30-22:15

14, astelehena: 21:30

«El Gran Silencio» (Z.K.)

17, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Spideiman III»

11, barixakua: 19:30-22:15

12, zapatua: 17:00-19:30-22:15

13, domekia: 17:00-19:30-22:15

14, astelehena: 19:30-22:15

15, martitzena: 19:30-22:15

16, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«El buen pastor»

Zuzendaria: Robert De Niro.

Antzezleak: Matt Damon, Angelina Jolie.

Orain arte inork kontatu ez duen CIAREN istorioa kontatzen du filmak. Edward Wilsonen bizitza kontatzen zaigu, gaztaro pribilegiatu eta aldi berean zorigaitzotatik hasi, eta adiskide batzuekin batera munduko espionitza agentziarik boteretsuena sortu arteko ibilbidea besteak beste. Patriotismoa eta idealismoa bultzatu zuten Wilson CIA sortzera, baina Gerra Hotzean nagusitu zen paranoiak kutsatu zuen.

«El Gran Silencio» (Z.K.)

Zuzendaria: Philip Gröning
Dokumentala.

Grande Chartreuseko (frantziar alpeetan dagoen monasterio ezaguna) egunerokoa erakusten du alemaniar jatorriko dokumental honek. Medio handirik gabeko filma da, biluzia, non meditazioa eta isiluneak nagusi diren; bizitza apaingamirik gabe. Urte-sasioak aldatzen diren bitartean, eguneroko ohiturak behin eta berri erepikatzen dira. Bizitza Jainkoari ematea erabaki duten gizonen bizimodua.

Atzera hegira



1929. urteko erretratu zahar hau **Loli Elejaldek** laga digu. Mujika tailerra zegoen tokian aterata dago argazki hau, lantegi aurrean, hain zuzen ere. Argazkian agertzen diren emakume hauek oso lagunak ziren beraien artean, askotan elkartzen ziren irteerak egin edota egunpasa joateko. Urte asko pasatu dira, baina garai hartako jantziak ere dotoreak ziren. Emakume hauek guztiak hilda daude. Ezkerretik eskumara: **Victoria Mujika, Juanita Garcia, Karmen Arriola, Florentina Mujika eta Salome Azkue.**



ESKERTZA

2007ko maiatzaren 2an, 90 urte zituela hil zen
Ramon Canales Truebaen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 13an hil zen
Eusebia Iriondo Barrutiaren oroimenez urteurreneko meza
izango da, larunbatean, hilak 12, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.
EZ AGURRIK, EZ ADIORIK, GERO ARTE BAKARRIK



FONTANERÍA

Ibámar

ITURGINTZA

Ermuaran bide, 11

Tel.: 943 53 18 47

Mobila: 647 463 436


- Berokuntza
- Gasa
 - Gasoila
 - Aire egokitua

Gure bulego berrian aurkituko gaituzu!

Gaur, arratsaldeko 19:00etan **INAUGURAZIOA!**




Elgoibarren,

 egin behar dugu

Alfredo Etxeberria Murua

Elgoibarko Alkatetzarako
hautagaia

Mendaron,

 egin behar dugu

Irene Berasaluze Lazkano

Mendaroko Alkatetzarako
hautagaia



www.eginbehardugu.com

eman botoa
VOTO 
www.eaj-pnv.com

Motorra erostekotan al zabiltza?



Hementxe daukazu **MAPFRE**-ren
MOTORRARENTZAKO ASEGURU BERRIA!!



MAPFRE

San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07
E-posta: patxiza@mapfre.com